



NAFARROAKO PARLAMENTUKO

ALDIZKARI OFIZIALA

V. legegintzaldia

Iruñean, 2001eko abenduaren 11n

124 ZK.

A U R K I B I D E A

A SAILA:

Foru lege proiektuak:

- Foru legea, Nafarroako 2000ko Kontu Orokorrei buruzkoa. Osoko Bilkurak onetsia (3. or.).
- Foru legea, martxoaren 13ko 2/1989 Foru Legea, ikuskizun publikoak eta josteta jarduerak arautzen dituen, aldatzekoa. Osoko Bilkurak onetsia (4. or.).
- Foru legea, Nafarroako Nekazaritzako Ustiatgien Erregistroari buruzko abenduaren 15eko 20/1997 Foru legea aldatzekoa. Osoko Bilkurak onetsia (5. or.).
- Foru Lege proiektua, Sozietateen gaineko zergari buruzko abenduaren 30eko 24/1996 Foru Legeko zenbait arau aldatzen dituena. Zuzenketak aurkezteko epea (11. or.).

B SAILA:

Foru lege proposamenak:

- Foru legea, Nafarroako Kontseiluari buruzko martxoaren 16ko 8/1999 Foru Legea aldatzen duena. Osoko Bilkurak onetsia (12. or.).
- Foru Lege proposamena, Nafarroako errepideen erabilerari eta ustiapenari buruzkoa. Osoko Bilkurak baztertua (14. or.).

D SAILA:

Hitzarmenak:

- Lankidetz hitzarmena, Hezkuntza, Kultura eta Kirol Ministerioaren eta Nafarroako Gobernuaren artekoa, Espainiako ondare bibliografikoaren katalogo kolektiboa egiteko (15. or.).
- Lankidetz hitzarmena, Enpleguaren Institutu Nazionalak eta Nafarroako Foru Komunitateak eratu duten Koordinazio eta Jarraipen Batzordearen eginkizunak arautzeko. Osoko Bilkuraren baimena (17. or.).
- Lankidetz hitzarmena, Nafarroako Foru Komunitatearen enplegu kudeaketa eta Enpleguaren Institutu Nazionalaren langabezi prestazioena koordinatzeko. Osoko Bilkuraren baimena (18. or.).
- Lankidetz hitzarmena, Enpleguaren Institutu Nazionalaren eta Nafarroako Foru Komunitatearen artean informazioa eta estatistika trukatzeko. Osoko Bilkuraren baimena (18. or.).

E SAILA:**Jabeldurak, mozioak eta adierazpen politikoak:**

- Erabakia, Nafarroako Gobernua premiatzen duena Nazioko Gobernuari eskatzera Unibertsitatei buruzko Lege Organikoaren proiektuaren azterketa sakona egiteko behar diren neurriak har ditzan. Osoko Bilkurak onetsia (19. or.).

F SAILA:**Galderak:**

- Galdera, Ogasun publikoari buruzko Foru Legearen artikulua batzuren interpretazioari eta artikulua horiek Nafarroako aurrekontu orokorren zenbait alderditan duten eraginari buruzkoa, Batasuna Parlamentuko Taldeak egin (20. or.).
- Galdera, toki administrazio batzuetan idazkaritzak elkartzearen inguruko arazoei buruzkoa, foru parlamentari José Andrés Burguete Torres jaunak egin (21. or.).

G SAILA:**Txostenak, deialdiak, eta Parlamentuko informazioa:**

- Nafarroako Foru Komunitatean behi-aziendaren entzefalopatia espongiformearen jarraipena eta kontrola egiteko batzorde bereziak onetsitako txostena. Osoko Bilkurak berretsia (22. or.).
- Nafarroako Parlamentuak izendatu behar dituen Nafarroako Ikus-entzunezkoen Kontseiluko kideak izendatzea (25. or.).

A saila:
FORU LEGE PROIEKTUAK

Foru legea, Nafarroako 2000ko Kontu Orokorrei buruzkoa

OSOKO BILKURAK ONETSIA

Nafarroako Parlamentuak, 2001eko azaroaren 27an egindako Osoko Bilkuran, Nafarroako 2000ko Kontu Orokorrei buruzko Foru Legea onetsi zuen.

Biltzarreko Erregelamenduko 143. artikuluan ezarritakoa betez, argitara dadin agindu da.

Iruñean, 2001eko abenduaren 4an

Lehendakaria: José Luis Castejón Garrués

Foru legea, Nafarroako 2000ko Kontu Orokorrei buruzkoa

Nafarroako Foru Eraentza Birrezarri eta Hobeitzeari buruzko Lege Organikoaren 18. artikuluan xedatutakoarekin bat etorritik, Diputazioari dagokio Aurrekontu Orokorrek prestatzea eta Kontuak formalizatzea Parlamentuari aurkezteko, horrek eztabaidan jarri, zuzendu eta, behar izanez gero, onspena eman diezaien, hori guztia foru legeek ezarri dutenari jarraikiz.

Nafarroako Ogasun Publikoari buruzko abenduaren 26ko 8/1988 Foru Legeko 110. artikuluan Ekonomi eta Ogasun Departamentuaren esku uzten du Nafarroako Kontu Orokorren formula-zioa, eta horiek, behin Nafarroako Gobernuak onetsita dituela, Nafarroako Parlamentura igorri beharko dira behar duten foru lege proiektuaren bidez, 8/1988 Foru Legeko 115. artikuluan aginduta dagoen bezala.

Nafarroako Gobernuak 2000ko ekitaldiko Kontu Orokorrei buruzko izapidaketak beterik dituela, Kontuen Ganbarak derrigorrezko irizpena emana duelarik eta Nafarroako 2000ko Kontu Orokorrei buruzko Foru Lege proiektua Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduko 154. artikuluan ezarritako prozeduraren arabera izapidatu delarik, bidezko da foru lege horri onspena ematea.

Artikulu bakarra. Onetsi egiten dira Ekonomi eta Ogasun Departamentuak formulatu eta Nafarroako

Gobernuak onetsitako Nafarroako 2000ko Kontu Orokorrek, Nafarroako Ogasun Publikoari buruzko 8/1988 Foru Legeko 113, 114 eta 115. artikuluetan ezarritakoarekin bat etorritik. Edukia ondoko agirietan agertzen da:

I. LIBURUKIA. Nafarroako Parlamentuaren eta Kontuen Ganbararen kontuak, Nafarroako Foru Komunitateko Administrazioaren eta haren erakunde autonomoen kontuak, sozietate publikoen kontuak eta 2000rako Nafarroako Aurrekontu Orokorren betetze-mailaren azterketa. Liburuki honek, besteak beste, agiri hauek biltzen ditu:

- Gastu eta dirusarreraren aurrekontuen likidazioaren egoera-orriak.
- Egoeraren balantze orokorra.
- Emaizten kontua.
- Funtsen jatorriaren eta aplikazioaren egoera-orriak.
- Diruzaintzako kontu orokorra.
- Zorpetzeari buruzko kontu orokorra.
- Ondasun, eskubide eta obligazioen inbentarioa.
- Aurreko ekitaldien ondorioz kobratu beharreko eskubideen eta ordaindu beharreko obligazioen bilakaera eta egoera azaltzen duen egoera-orria.

– Ekitaldian erabilera orokorrari loturiko jabari publikoko ondasunetan eginiko inbertsioak azaltzen dituen egoera-orria.

– Hurrengo ekitaldien kontura harturiko konpromisoen egoera-orria.

II eta III. LIBURUKIAK. Nafarroako Parlamentuaren, Kontuen Ganbararen eta sozietate publikoen kontuen garapena.

IV. LIBURUKIA. Nafarroako Aurrekontu Orokorren eta egoera-orri finantzarioen likidazioaren xehetasun-dokumentuak, 2000ko ekitaldia ixtean.

Foru legea, martxoaren 13ko 2/1989 Foru Legea, ikuskizun publikoak eta josteta jarduerak arautzen dituen, aldatzekoa

OSOKO BILKURAK ONETSIA

Nafarroako Parlamentuak, 2001eko azaroaren 27an egindako Osoko Bilkuran, martxoaren 13ko 2/1989 Foru Legea, ikuskizun publikoak eta josteta jarduerak arautzen dituen, aldatzeko Foru Legea onetsi zuen.

Biltzarreko Erregelamenduko 143. artikuluan ezarritakoa betez, argitara dadin agindu da.

Iruñean, 2001eko abenduaren 4an

Lehendakaria: José Luis Castejón Garrués

Foru legea, martxoaren 13ko 2/1989 Foru Legea, ikuskizun publikoak eta josteta jarduerak arautzen dituen aldatzekoa

ZIOEN AZALPENA

Martxoaren 13ko 2/1989 Foru Legeak Nafarroako Foru Komunitatearen lurraldean egiten diren ikuskizun publikoak eta josteta jarduerak arautzen ditu, jende guztiarentzakoak edo jendea biltzeko gaitasuna dutenak direnean, titulartasuna publikoa izan edo pribatua izan, antolatzaileek irabazteko asmoa izan edo ez izan, maiz egin edo oso noizbehinka egin. Nolanahi ere, foru lege horren eraginetik kanpo gelditzen dira eremu pribatu-pribatura mugaturiko jarduerak, familiakoak edo izaera sozialekoak, baldin eta ez badaude irekiak jende guztiarentzat. Bestetik, ixteko ordua ez errespetatzea arau-hauste arintzat jotzen du eta udalei ematen die arau-hauste arinak zehatzeko gaitasuna.

Martxoaren 13ko 2/1989 Foru Legea aldatu beharrak honako honetan du sorburua: beharrezkoa da ikuskizun publikoak edo josteta jarduerak egiten diren lokal edo establezimenduen arautegia berritzea eta, batik bat, beharrezkoa da zehapenen araubidea aldatzea, arauak aplikatzeko orduan eragingarritasuna hobetze aldera.

Gainera, toki entitateek hamaika aldiz adierazi dute aurre egin behar zaiola sortu den problematika bati, hots, sarbide murriztuko lokal eta instalazioetan izaera sozialeko josteta jarduerak antolatzearan sorturiko problematikari, bereziki segurtasun baldintzei, osasungarritasunari eta hirugarrenentzako enbarazuei dagokienez. Adierazi dute, bestetik, jende guztiarentzat irekita egoten diren establezimendu publikoek ixteko ordua ez

errespetatzea behin eta berriz gertatzen den kontua dela eta aurre egin behar zaiola horri.

Helburu horiek betetzeko, Foru Lege honek, jende guztiarentzat irekita ez dauden lokaletan egiten diren josteta jardueren funtzionamendu araubidea errespetatuz betiere, neurri sail bat ezarri die establezimendu horiei, pertsonen segurtasuna ziurtatzeko eta hirugarrenei enbarazurik ez egiteko. Bestaldetik, lokal barreneko musikaren bolumenaren muga gainditzeagatiko arau-haustea tipifikatzen du, larrizat hartzen du establezimendu publikoetako irekitzeko eta ixteko orduak ez errespetatzea, eta, azkenik, partez aldatzen du zehatzeko ahalmenaren inguruko eskumenen araubidea.

Artikulu bakarra. Ikuskizun publikoak eta josteta jarduerak arautzen dituen martxoaren 13ko 2/1989 Foru Legearen zenbait artikulua, ondoren aipatzen direnak, honela idatzita geldituko dira hemendik aurrera:

Lehenbizikoa.- 1.2 artikulua testu berria.

“2. Aplikaziotik kanpo geldituko dira jende guztiarentzat irekita ez dauden eta eremu pribatu-pribatura edo familiarra mugaturikoak diren jarduerak, baita Konstituzioak onartutako eskubide oinarrikoen baliatuz egiten direnak ere. Nolanahi den, dibertsio edo jostetarako jarduerak horiek egiten diren lokalek behar bezalako baldintza teknikoak bete behar dituzte hirugarrenei enbarazurik ez egiteko eta pertsonen zein ondasunen segurtasuna bermatzeko, batez ere hauei dagozkienak: egituren sendotasuna, instalazioen funtzionamendua, suteen kontrako prebentzio eta babes neurriak eta osasungarritasun eta higiena. Horietarako, bada, udalaren baimena beharko dute lokal horiek”.

Bigarrena.- 2. artikulua testu berria.

“Erregelamendu bidez, Foru Lege honen menpean diren lokal edo establezimenduen eta ikuskizun publiko eta josteta jardueren katalogoa egiten da. Katalogo horrek jarduerak bakoitza bere ezaugarrietan oinarrituz eta ondoko irizpideei jarraituz definitu beharko du:

a) Jarduerak arautu eta katalogatuko dira, eta horiek egokitu, garatu eta sustatuko dira, baina garatzen diren jarduerak ez dira inolaz ere murriztuko.

b) Udalei esku emanen zaie araudia aplikatzeko, lizentziak emateko eta jardueren ordutegia zabaldu zein murrizteko.

c) Ez-betetzeen ondoriozko zehapenak ezartzea, proportzionaltasun irizpideak, enpresen ahalmen ekonomikoa eta ez-betetzearen larritasuna kontuan hartuz.”

Hirugarrena.- 23. artikuluari 19. eta 20. idatzatiak gehitzea.

“19. Ikuskizun publikoen eta josteta jardueren irekitzeko eta ixteko orduak ez betetzea.

20. Lokal barreneko musikaren bolumenaren muga gaintzea, ikuskizun publikoen eta josteta jardueren arautegiaren arabera onargarriak diren gehieneko mugak 10 dbA baino alde handiagoz gaintzen direnean”.

Laugarrena.- 24. artikulua testu berria.

“Arau-hauste arintzat hartuko dira foru lege honetan edo lege hau garatzeko erregelamenduetan xedatutakoa urratzen duten egite eta ez-egite guztiak, betiere arau-hauste larritzat edo oso larritzat tipifikaturik ez badaude. Zehazki, arintzat hartuko dira hauei dagozkien arau-haustek: tramite administratiboak, lokal barreneko musikaren bolumena, edariak lokaletik kanpora ateratzen espreski baimentzea eta jarduera garatzen duten gainerrako arauak dagozkienak”.

Bosgarrena.- 27. artikulua testu berria.

“1. Arau-hauste arinengatiko zehapen espedienteak ireki, instruitu eta ebaztea aginduzko baimen edo lizentzia emateko eskumena duen organoari dagokio.

2. Arau-hauste larriengatiko zehapen espedienteak ireki, instruitu eta ebaztea udalei dagokie 50.000 biztanletik goitiko udalerrietan, eta Lehendakaritza, Justizia eta Barne kontseilariari, gainerrakoetan.

3. Arau-hauste oso larriengatiko zehapen espedienteak ireki, instruitu eta ebaztea Lehendakaritza, Justizia eta Barne kontseilariari dagokio.”

Azken xedapenak

Lehenbizikoa. Ahalmena ematen zaio Nafarroako Gobernuari foru lege hau garatu eta beteazterako behar diren erregelamenduzko xedapenak eman ditzan.

Bigarrena. Indarrik gabe gelditzen dira foru lege honetan xedatutakoari kontra egiten dioten arau guztiak.

Hirugarrena. Foru lege honek Nafarroako Aldizkari Ofizialean argitaratu eta biharamunean hartuko du indarra.

Foru legea, Nafarroako Nekazaritzako Ustiatgien Erregistroari buruzko abenduaren 15eko 20/1997 Foru legea aldatzekoa

OSOKO BILKURAK ONETSIA

Nafarroako Parlamentuak, 2001eko azaroaren 27an egindako Osoko Bilkuran, Nafarroako Nekazaritzako Ustiatgien Erregistroari buruzko abenduaren 15eko 20/1997 Foru legea aldatzeko Foru Legea onetsi zuen.

Biltzarreko Erregelamenduko 143. artikuluan ezarritakoa betez, argitara dadin agindu da.

Iruñean, 2001eko abenduaren 4an

Lehendakaria: José Luis Castejón Garrués

Foru legea, Nafarroako Nekazaritzako Ustiatgien Erregistroari buruzko abenduaren 15eko 20/1997 Foru legea aldatzekoa

ZIOEN AZALPENA

Abenduaren 15eko 20/1997 Foru Legeak, Nafarroako Nekazaritzako Ustiatgien Erregistroari buruzkoak, bi neurri ezarri zituen nekazaritza

bultzatu eta antolatzeko, Foru Komunitateak nekazaritza eta abeltzaintza gaietan eta bere ogasun eta tributu sistemak dituen eskumenetan oinarriturik: alde batetik, nekazaritza ustiategien erregistro bat sortzea, Nafarroako nekazaritza eta abeltzaintza ezagutzeko administrazio tresna izan zedin, gero sektore horiek babesteko politika zentzuzko baten planifikazioa egin ahal izateko, eta, beste alde batetik, legeria erkideak Nafarroako nekazariarentzat ezartzen dituen onura fiskalen zabalkunde hobetua eskaintzea, bereziki lehentasunezko nekazaritza ustiategiei eta nekazari gazteei.

Bi neurri horiek aplikatu diren ia lau urte hauetan frogatu da zuzena zela horiek ezartzea, eta oso eraginkorrak izan direla. Gaur, Nafarroak bere lehen sektoreari buruzko informazio gehiago eta hobea du, behar diren erabakiak hartuz mundu osoko merkatuak nekazaritzako edozein politikari planteatzen dizkion erronkei aurre agin ahal izateko. Eta gaur, horrez gain, Nafarroako ustiategiak, dudarik gabe, duela urte gutxi batzuk baino askoz ere modernoagoak dira, konpetitiboagoak eta ekonomia aldetik bideragarriagoak, jabeen ekimenari esker, betiere Europar Batasunak eta, bereziki, Nafarroako Foru Komunitateak berak nekazaritzako inguruneari eta kalitatezko nekazaritzako ekoizpenari eusteko jarri dituzten baliabideen babesarekin.

Nafarroako ordenamendua bilakakorra eta dinamikoa denez, zentzuzkoa dirudi, foru lege honetan, aipatutako lehen ildo horretatik aurrera jarraitzeak, abenduaren 29ko 20/2000 Foru Legeak zerga arloko neurrien bidez nekazariarentzako laguntza fiskalaren ildotik garbi aurrera egin duenez gero. Komeni da, beraz, sortutako administrazio erregistroaren antolamendu eta funtzionamendua hobetzea, eta horretarako bertan dagoen informazioa sendotzea, nekazaritzako sektorearen zerbitzurako.

Bestalde, beharrezkoa da foru legea egokitztea, alde batetik, 2000ko Agendaren paketetik sortutako Europako araudi berrira; bereziki, kontseilariak 1999ko maiatzaren 17an emandako 1257/12999 (EE) Erregelamenduak –(FEOGA) Nekazaritzako Orientazio eta Bermerako Europako Fondoaren karguko nekazaritzako garapenari buruzkoak– eta araudi hori garatu eta osatzeko xedapenek sartutako berrikuntza kontzeptual eta terminologikoetara. Eta beste alde batetik, egokitu beharra dago abenduaren 13ko 15/1999 Lege Organikoak datu pertsonalak babesteari dagokionez ezartzen dituen eskakizun berrietara, lege horrek ordeztu baitu urriaren 29ko 5/1992 Lege Organikoa, datu pertsonalen tratamendu automa-

tizatuari buruzkoa, Auzitegi Konstituzionalak 2000ko azaroaren 20an emandako epaiaren ildotik.

Foru legeak Nafarroako Nekazaritzako Ustiategien Erregistroan sartzen dituen berrikuntzen artean honako bi hauek nabarmentzen dira:

Lehenik, Nekazaritza, Abeltzaintza eta Elikadura Departamentuak berak, bere kabuz, Foru Komunitateko Administrazioak dituen datuez baliatuz, hasierako inskripzioa egiteko aukera izatea. Inskripzio horiek interesatuari adieraziko zaizkio, jakinaren gainean egon dadin eta datuak zuzentzeko, behar bada. Horrela, dagokien herritarrei behar diren bermeak ematen zaizkie eta inskripzioa arindu eta errazten da, inskripzioa ez baita karga edo administrazio traba bihurtzen populazioaren sektore zabal batek aginte publikoek hedatutako laguntza publikoen aukera zabala irispidean izateko.

Bigarrenik, foru legeak garbiago adierazten ditu nekazaritzako sozietateen ustiategi deritzeneke bete beharreko beharkizun orokorrak; bereziki, gutxieneko kapital sozial bat bere gain hartu beharri dagokionez, ekonomikoki bideragarri eta iraupenez mugagabe izan beharrekina batera, hori baita nekazaritzako sozietateei, gutxienez, sei urteko iraupena bermatzeko bidea, ondasun erkidego ordenamendu juridikoak ezarri dizkienen antzeko baldintzetan. Baina elkartze figurak definitzean aurrerabide ausart bat premiazkoen egiten zen arloa, dudarik gabe, sozietate zibilena zen, horien erregulazioa ez baitzen behar bezain zehatza aurreko araudian. Puntu honetan, legeberritzeak ekoizpen-ahalmen eta sendotasun handiagoko sozietate zibilen Nekazaritza Ustiategien Erregistroarako irispidearen alde egiten du, eta horren helburua da orain ezarritako baldintzak betetzen dituztenak soil-soilik izan daitezela Europako eta Nafarroako aginte publikoek prestatutako laguntza publiko garrantzitsu horien hartzaile izateko merezidun, baldintza horiek baitira ustiategiaren titularraren gaitasun profesional egokiaren berme.

Laburbilduz, foru lege honek duela urte batzuk hasitako bidetik jarraitzen du, hortik ziurtatu nahi baitira Nafarroan nekazaritzako ustiategi modernoak, ahalmen ekonomikoz hornituak, nekazaritzako profesionalek –bereziki jarduera ekonomiko garrantzizko honetan sartzen diren gazteek– gobernatuak, eta ingurumenaz arduratuak.

Artikulu bakarra. Honako aldaketa hauek sartzen dira abenduaren 15eko 20/1997 Foru Legean, Nafarroako Nekazaritza Ustiategien Erregistroari buruzkoan:

3. artikulua.

5 eta 8. idatz-zatiak kentzen dira eta 3, 6, 7 eta 12. idatz-zatiei testu berria ematen zaie:

“3. Ustiategiko elementuak, landa-ondasun higiezinak eta nekazaritzako aprobetxamendu iraunkorrean erabiltzen direnak; etxebizitza familiar bakar banakatuak ohiko bizileku finkotarako erabiliak eta landan kokatuak, nekazaritzako egoitzekikoa; nekazaritzako eraikin eta instalazioak; azienda; makineriaren erregistroan inskribaturiko nekazaritzako ibilgailuak eta makineria. Ondasun hauek guztiek ustiategian integratuak izan behar dute eta hari esleituak, eta horien aprobetxamendu eta erabilerak titularrarena izan behar du, dela jabetza erregimenean, dela errentan, dela erabilerara eta gozamen eskubidez edo jabeak utzirik besterik gabe. Halaber, ustiategiko elementuak dira titularrari dagozkiokeen eskubide eta betebeharguztiak, ustiategiari esleituak baldin badira, hor barne delarik, nekazaritzako makineria beste kideekin batera erabiltzeko kooperatiba batean sozio gisa parte hartzeagatik titularrari dagokion makineriaren partea”.

“6. Nagusiki nekazaritzan aritzen dena, honako baldintza hauek guztiak betetzen dituen pertsona fisikoa:

a) Nafarroako Nekazaritzako Ustiategien Erregistroan inskribaturiko ustiategi baten titular izatea.

b) Urtero, gutxienez, bere errenta osoaren 100eko 50 bere ustiategian egiten duen lanetik eskuratzea, eta hori, gutxienez, erreferentziako errentaren 100eko 15 izatea.

Nekazaritzako errentatzat hartuko dira nekazaritzako kooperatiben edo nekazaritzako beste sozietate batzuen nahitaezko eta borondatezko fondoetarako ekarpenen ondorioz jasotako ordainsariak, baldin eta titularrak horietako sozio aktiboa bada.

c) Ustiategiarekin zuzenean loturiko lan orduak urtero bere lan denbora osoaren erdia edo gehiago izatea.

d) Gizarte Segurantzako Nekazaritzako Araubide Berezian norberaren kontura edo norberaren konturako langileen edo autonomoen araubide berezian alta emana izatea, bere nekazaritza jardueraren arabera.

Ondorio hauetarako, nekazaritzako jardueratzat hartuko dira titularraren parte-hartzea eta agertzea, hauteskunde publikoen ondorioz, ordezkaritza-erakunde publikoetan, bai eta ordezkaritza-organo sindikal, kooperatibo edo profesionale-

tan, baldin eta nekazaritzako sektoreari lotuak badira”.

“7. Nekazari gaztea: hemezortzi urte beteak eta berrogei bete gabe dituen eta nagusiki nekazari gisa nekazaritza jardueretan ari dena edo aritzeko asmotan dena. Ondorio hauetarako, adin nagusitasunari parekatuko zaio ezkontzagatiko emantzipazioa edo guraso boterearen eskuratzeari”.

“12. Erreferentzia-errenta, nekazaritzaz kanpo langileen urteko batez besteko soldata gordina.”

4. artikulua.

4. idatz-zatiari testu berria ematen zaio:

“4. artikulua. Sorrera.

4. Nekazaritza Ustiategien Erregistroko datuak Datu Pertsonalak Babesteko abenduaren 13ko 15/1999 Lege Organikoan jasotako arauen menpe geratuko dira”.

5. artikulua.

2 f) idatz-zatiari testu berria ematen zaio eta 5. idatz-zati berri bat gehitzen da:

“5. artikulua. Inskriba daitezkeen egintzak.

2. f) Nekazaritzako eraikin eta instalazioak, bai eta nekazaritza eta abeltzaintzako norberaren produktuak edo esplotatzeko eskuratutakoak eraldatzeko badira ere.”

5. Erregistroa gaurkotzea eta aldaketa funtsezkoak jasotzea errazteko, Nekazaritza, Abeltzaintza eta Elikadura Departamentuak erabili ahal izanen ditu Nafarroako nekazaritzako ustiategiei buruz Nafarroako Foru Komunitateko Administrazioan eta bere erakunde autonomoetan jasota dauden datuak”.

6. artikulua.

6. artikuluari testu berria ematen zaio, eta honela geratzen da idatzirik:

“6. artikulua. Hasierako inskripzioa.

1. Nekazaritzako ustiategi bat Erregistroan inskribatzeko prozeduraren hasiera honako bi modalitate hauetakoren baten bidez egin daiteke:

a) Ustiategiaren titularrak edo bere ordezkariak eskaturik.

b) Nekazaritza, Abeltzaintza eta Elikadura Departamentuak ofizioz, Nafarroako Foru Komunitateko Administrazioan eta bere erakunde autonomoetan jasota dauden datuez baliatuz. Ofizioz inskribatzeko proposamenak interesatuari jakina-

raziko zaizkio berrets ditzan eta, nahi badu, datuak zuzentzeko.”

2. Nekazaritzako ustiategi bat inskribatu eta gero, Erregistroari funtsezko aldaketen berri ematea nahitaezkoa da ustiategiaren titularrarentzat, eta horrek ez du galarazten aurreko zenbakiko b) letran xedatutakoa”.

7. artikulua.

7. artikuluari testu berria ematen zaio:

“7. artikulua. Nahitaezko inskripzioa.

Aurreko artikuluko 1. idatz-zatian xedatutakoa gorabehera, nahitaezkoa da Nafarroako Nekazaritza ustiategien Erregistroan inskribatzea edo, bestela, inskribatzeko eskaera egina izatea, baldin eta eskatzen den dokumentazioa osorik badago, foru lege honek ezarritako onurak eta Foru Komunitateko Administrazioak nekazaritza sektorearen alde ezartzen dituenak eskuratu ahal izateko, Nafarroako Aurrekontu Orokorren kargura”.

8. artikulua.

8. artikuluari testu berria ematen zaio, eta honela geratzen da idatzirik:

“8. artikulua. Erregistroaren antolamendua.

1. Nafarroako Nekazaritza ustiategien Erregistroak behar diren fitxategiak egituratuko ditu bere datuak ahalik eta hobekien antolatzeko eta bereiziko ditu lehentasunezko ustiategiak eta gainerakoak, foru lege honen 5. artikuluan eskaturiko datuak jasoz.

2. Nafarroako Gobernuak Zuzenbidez onartutako sistema informatikoen erabilpena bultzatuko du Erregistroa osatzen duten datuak ahalik eta modurik errazenean betetzeko.

3. Erregistroaren mantentzerako, Nekazaritza, Abeltzaintza eta Elikadura Departamentuak erabiltzen ahal ditu nekazaritzako eskumenak gauzatzeko bere esku dituen datuak, eta baita Nafarroako Foru Komunitateko Administrazioaren gainontzekoak eta horren erakunde autonomoek dituztenak ere, datu pertsonalak babesteari buruzko legeria indardunarekin bat”.

10. artikulua.

1. idatz-zatiari testu berria ematen zaio eta 3. idatz-zatia kentzen da:

“10. artikulua. Famili ustiategiak edo titulartzat pertsona fisikoak dituztenak.

1. Lehentasunezko ustiategi gisa kalifikatzeko, famili ustiategiek edo titulartzat pertsona fisikoak

dituztenek honako baldintza hauek bete behar dituzte eta urtean zehar ez aldatu:

a) Ustiategiak, gutxienez, nekazaritzako lan unitate bat okupatzeko aukera ematea. Nekazaritzako lan unitate bat dagoela joko da laneko etekinetatik ez bada 3.000 euro baino gehiagoko diru-sarrerarik eskuratzen.

b) Nekazaritzako ustiategitik lortzen den lan unitatearen errenta, gutxienez, erreferentzia errentaren 100eko 35 izatea.

c) Ustiategiaren titularra nekazaritzan nagusiki aritzen dena izatea, foru lege honen 3. artikuluko 6 zenbakian ezarritakoaren arabera.

d) Hemezortzi urte beteak eta hirurogeita bost bete gabe izatea. Hemengo ondorioetarako adin nagusitasunari parekatuko zaio ezkontzogatiko emantzipazioa edo guraso boterearen eskuratzea.

e) Nafarroan edo eskualde mugakideetan bizitzea, Autonomia Erkidego mugakideen lurralde antolamenduari buruz legeria autonomikoak definituetan egoitzari buruzko baldintza honetatik salbuetsiak dira ezinbesteko kasuak edo Nekazaritza, Abeltzaintza eta Elikadura Departamentuaren arabera premiazkoak direnak.”

11. artikulua.

11. artikuluari testu berria ematen zaio:

“11. artikulua. Nekazaritzako elkarte-ustiategiak.

Lehentasunezko ustiategitzat hartzeko, nekazaritzako elkarte-ustiategiek baldintza hauek bete beharko dituzte eta urtean zehar ez aldatu:

a) Hurrengo artikuluko baldintzak betetzen dituen sozietate zibilaren forma juridikoa izatea, edo beste hauetakoren bat: nekazaritzako eraldakuntza sozietatea, lan sozietatea, kooperatiboa, erregular kolektiboa, anonimoa, erantzukizun mugatukoa edo merkataritzako besteren bat.

b) Xede bakartzat izatea nekazaritzan jardutea euren titulartasuneko ustiategian.

c) Gutxienez hiru mila euroko kapitala jarria edo izenpetua izatea (edo balio bera pezetatan).

d) Sozietate anonimoen kasuan, akzioek izendunak izan behar dute eta kapital sozialaren 100eko 50 baino gehiagok nagusiki nekazaritzan aritzen diren sozioena izan behar du.

e) Nekazaritzako elkarte-ustiategiak, gutxienez, nekazaritzako lan unitate bat hartu behar du eta unitate bakoitzeko lan-unitatearen errentak erreferentziako errentaren 100eko 35 izan behar du gutxienez.

f) Sozioen 100eko 50, gutxienez, nagusiki nekazaritzan aritzen direnak izatea.

g) Iraupenari dagokionez mugagabea izatea eta, gutxienez, eratze eskritura publikoan jasotako baldintzen artean sei urteko epean ez zatitzeko hitzarmen bat jasota egotea eta baita sozio guztiak uko espresua nekazaritzako araudiak eskaintzen dituen laguntza eta onurak norberaren izenean ez aurkezteko sozietateak dirauen bitartean eta berarekin loturik, salbu eta sozietatea utzi edo desegiten den legezko kasuetan eta norberaren zirkunstantziak kontuan harturik laguntza bateragarriak jaso direnean. Halaber, bi sozio baino gehiagoko sozietateetan hitzarmen bat egon behar du, sozioetako bat hiltzen bad bizirik gertzen direnek sozietateari eutsiko diotela ezartzen duena”.

11 bis artikulua.

11 bis artikulua berri bat eransten da:

“11 bis artikulua. Nekazaritzako sozietate zibila.

1. Nekazaritzako eraldakuntza sozietateen araubide berezia ezertan galarazi gabe, Nafarroako Nekazaritza Ustiategiaren Erregistroan inskribatzeko eta, ondorioz, Nafarroako Foru Komunitateko Administrazioak edozein modalitateetan ematen edo onartzen dituen laguntza publikoetarako irispidea izateko, nekazaritzako eraldakuntza sozietatez bestelako sozietate zibil gisa antolatutako nekazaritzako ustiategiak eskritura publikoz eratu dira, eta bertan jasota egon behar dute gutxienez honako hauek:

a) Sozietatearen xedea, adierazten den ustiategian edo ustiategietan soil-soilik nekazaritzan jardutea izanen baita.

b) Sozioen izen-deiturak eta helbidea.

c) Nafarroako Foru Komunitatean sozietateak duen helbidea.

d) Sozietatearen izena: sozio guztiena edo sozietatean parterik handiena dutenena bilduko du eta ezin sartuko da sozietatekoa ez den pertsona baten izena.

e) Sozietatearen administrazioa eta ordezkari-tza bereziki bere gain duen sozioaren edo sozioen izen-deiturak, eta ematen zaio/e sozietatea hiru-garrenekin obligarazteko ahalmena eta sozietatearen sinadura erabiltzekoa. Administrazioa horrek nagusiki nekazaritzan diharduena behar du izan.

f) Sozio bakoitzak zenbateko kapitala jarri duen dirutan, kreditutan, efektu edo ondasun higigarri edo higiezinetan, azken horiei ematen zaien

balioa edo balorazioa egiteko oinarriak jasoaz eta, kasua bada, erregistroko eta katastroko datuak. Kapital hori ez da izanen, inoiz, hiru mila euro baino gutxiagokoa (edo balio bera pezetatan).

g) Sozietatearen iraupena, foru lege honetako 11. artikuluko 1. idatz-zatiko g) letran xedatutakolari lotu beharko zaiona. Sozietatearen eragiketarik ezin hasiko dira eskritura egilesten den data baino lehenago; bai, ordea, eraldaketa kasuan.

h) Sozietatea osatzen duten sozioek, kudeatzaile izan ala ez, duten erantzunbeharraren araubidea; pertsonala eta solidarioa izanen da, beren ondasunen bidez gauzatu beharrekoa, sozietatearen izenean eta beraren kontura egiten diren eragiketetan, sinadura erabiltzeko ahalmena duenak sozietatearen sinadura erabiliz egin badira.

i) Sozio guztiek, osatzen duten sozietateaz kanpo, beren kontura negoziarik edo sozietatearen xedearekin loturiko jarduerarik ez egiteko harturiko konpromisoa.

j) Irabaziak eta galerak banatzeko arauak.

k) Sozietatea desegiteko kausak; hor jaso behar da baztertzen dela sozioen borondate hutsa, salbu eta motibo zuzena tartean bada; adibidez sozioetako batek bere betebeharretan huts egitea, negozio sozialetarako gaitasuna kentzea edo antzekoak. Sozioetako batek sozietatea utzi nahi duen kasurako, eskriturak jasoko du sozietatea utzi aurretik gainerako sozioei asmo horren berri emateko gutxieneko denbora.

l) Sozioei egoki iruditzen zaizkien gainerako hitzarmen eta baldintzak, legeen aurkakoak edo zenbaki honetan ezarritakoaren kontrakoak ez badira.

2. Sozietate zibilaren aldaketak ere eskritura publikoz tramitatuko dira”.

13. artikulua.

13. artikuluari testu berria ematen zaio:

“13. artikulua. Nekazari gazteak.

1. Lehen urteko lehentasunezko ustiategitzat hartuko dira honako hauek:

a) Nekazari gazteen lehen instalazioa, horretarako nekazaritzako laguntzak gobernatzeko dituzten arauen arabera, baldin eta nekazaria, gutxienez, lehentasunezko ustiategiaren 100eko 50aren titular edo titularkide bada.

b) Berrogeita hamabost urtetik beherako adineko nekazarien lehen instalazioa, baldin eta Gizarte Segurantzako Nekazaritzako Araubide Berezian norberaren kontura altan emanak badi-

ra, edo norberaren konturako langileen autonomoen araubide berezian, nekazaritzako jardueraren arabera, eta ustiategiak, Nafarroan egoitza izanik, gutxienez nekazaritzako lan unitate bat osatzeko aukera ematen badu.

2. Aurreko zenbakiak aipatzen duen lehen urtea pasaturik, ustiategiak, lehentasunezko hartua izateko, foru lege honetako 10.1 artikuluan ezarritako baldintza orokorrak bete beharko ditu.

3. Halaber lehentasuna izanen dute foru lege honetako 14. artikuluko 1. idatz-zatiko d) letrak aipatzen dituen produkzio kuota edo eskubideak esleitzerakoan, bere gain hastean, gutxienez, lehentasunezko ustiategi baten 100eko 50aren titular edo titularkide diren gazteek.”

Hirugarren xedapen gehigarria.

Hirugarren xedapen gehigarri berri bat erantsen zaio, honako testuarekin:

“Hirugarren xedapen gehigarria. Datu pertsonalak lagatzea.

1. Datu Pertsonalak babesteko abenduaren 13ko 15/1999 Lege Organikoko 11.2 artikuluko a) eta b) letren eta 21. artikuluen arabera, tratatzen diren datu pertsonalei buruzko informazioa, Nekazaritza, Abeltzaintza eta Elikadura Departamentuko fitxategietan dena, laga dakieke, interesatuaren baimenik gabe, Nafarroako Foru Komunitateko Administrazioari, Estatuaren Administrazioari eta Nafarroako Administrazio Publikoetarako beste organo batzuei, ordenamendu juridikoak ematen dizkien eskumen publikoak lagatzeko.

2. Horretarako Nekazaritza, Abeltzaintza eta Elikadura Departamentuari administrazio publikoek eskaera egitean, adierazi behar dute eskatutako informazioa zehazki zertarako den.

3. Nekazaritza, Abeltzaintza eta Elikadura Departamentuak lagatuko informazioa jasotzen duten administrazio publikoek beharrezkoak diren neurriak hartuko dituzte informazioaren konfidentziasuna bermatzeko, eta salbu uzteko ohorera eskubidea, pertsona fisikoen intimitate pertsonala eta familiarra eta pertsonen eskubideak osoki baliatzea, eta ez dute zilegi izanen informazioa hirugarrenei lagatzea, bestela, abenduaren 13ko 15/1999 Lege Organikotik sor litezkeen erantzukizunak beren gain izanen baitituzte.”

Xedapen iragankorrak

Lehena. Nagusiki nekazaritzan aritzen dena eta nekazari gaztea izateko 3. artikuluan ezarritako baldintza berriak, lege honetan duden idazketaren arabera, aplikatuko zaizkie foru lege honek indarra hartzen duenetik aurkezten diren laguntza-eskaera berri guztiei, nagusiki nekazaritzan aritzen dena edo nekazari gaztea izatea onuradun izateko, baldin eta haiei buruzko araudiak eskatzen edo eskatu badu.

Bigarrena. 1. Foru lege honek indarra hartzen duenetik ez da zilegi izanen lehentasunezko kalifikatzea nekazaritzako famili ustiategi edo elkarte ustiategiei buruzko eskaera berriak, ez baldin badituzte betetzen, hurrenez hurren, 10. eta 11. artikuluei eman zaien idazketa berriko baldintzak, edo bestela, 11 bis artikulukoak.

2. Nafarroako Nekazaritza Ustiategien Erregistroan inskribaturiko sozietateek, foru lege honek indar hartzen duenetik urtebeteko epean, ez badi-tuzte betetzen 11 eta 11. bis artikuluetan ezarritako beharrezkoak, lehentasunezko izatea galduko dute berainez, eta, ondorioz, data horretatik aurrera, ezin izanen dira izan nekazaritzako arautegiak ezarritako laguntza publikoen onuradun, osorik edo partez Nafarroako Foru Komunitateak finantzatuak.

Xedapen indargabetzailea

Indarrak gabe uzten dira foru lege honetan ezarritakoari aurka egiten dioten maila bereko edo apalagoko xedapen guztiak.

Azken xedapenak

Lehena. Nafarroako Gobernuari baimena ematen zaio, Nafarroako Foru Eraentza Birrezarri eta Hobetzeari buruzko abuztuaren 10eko 13/1982 Lege Organikoaren 21. artikuluen babesean, presta eta onar dezan, gehienez ere urtebeteko epean, Legegintzako Foru Dekretu baten bitartez, Nafarroako Nekazaritzako Ustiategien Erregistroari buruzko legezko xedapen indardunen testu batekin bat.

Bigarrena. Foru lege honek Nafarroako Aldizkari Ofizialean argitaratu eta biharamunean hartuko du indarra.

Foru Lege proiektua, Sozietateen gaineko zergari buruzko abenduaren 30eko 24/1996 Foru Legeko zenbait arau aldatzen dituen

ZUZENKETAK AURKEZTEKO EPEA

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2001eko abenduaren 4an egindako bilkuran, Erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Sozietateen gaineko zergari buruzko abenduaren 30eko 24/1996 Foru Legeko zenbait arau aldatzen dituen Foru lege proiektuari zuzenketak

aurkezteko epea **2002ko otsailaren 4an, 12:00etan**, bukatuko dela xedatzea.

2. Erabaki hau Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

Iruñean, 2001eko abenduaren 5ean

Lehendakaria: José Luis Castejón Garrués

B saila:
FORU LEGE PROPOSAMENAK

**Foru legea, Nafarroako Kontseiluari buruzko martxoaren 16ko 8/1999
Foru Legea aldatzen duena**

OSOKO BILKURAK ONETSIA

Nafarroako Parlamentuak, 2001eko azaroaren 27an egindako Osoko Bilkuran, Nafarroako Kontseiluari buruzko martxoaren 16ko 8/1999 Foru Legea aldatzen duen Foru Legea onetsi zuen.

Biltzarreko Erregelamenduko 143. artikuluan ezarritakoa betez, argitara dadin agindu da.

Iruñean, 2001eko abenduaren 4an

Lehendakaria: José Luis Castejón Garrués

**Foru legea, Nafarroako Kontseiluari
buruzko martxoaren 16ko 8/1999
Foru Legea aldatzen duena**

ZIOEN AZALPENA

Nafarroako Kontseilua, martxoaren 16ko 8/1999 Foru Legearen bitartez eratua, ekarpen garrantzitsua izan da Foru Komunitateko erakunde-egiturarako; izan ere, bertako erakundeen eskueran goi-mailako kontsulta-organo bat ezarri du. Kontsulta-organo horrek, Nafarroako Foru Komunitatearen Administrazioarentzat ez ezik, Erkidegoko erakundeentzat ere lan egiten du, Nafarroako Parlamentuak, Gobernuak eta beste erakunde batzuek eskaturiko irizpen ugariak baieztatzen duten bezalaxe.

Aipaturiko erakundeak urtebetez funtzionatu ondoren, agerian geratu da beharrezkoa dela foru legeko zenbait artikulutan aldaketa batzuk egitea, Kontseiluak berak 2000ko oroit-idazkian adierazi duen bezalaxe, aldaketa horiek egin behar diren arrazoiak azalduz. Horrela, alferrikako organo-bikoizketa hori, Osoko Bilkura eta Batzorde Iraunkorrena, kendu egin da, eta, horren ondorioz, beharrezko gertatzen da horren arabera gai-banaketa egokitzea eta aipaturiko batzordeari buruz egiten ziren aipamen guztiak eta hari egiten zitzaizkion gai-esleipen guztiak kentzea. Hitzarmen eta lankidetzak akordioei buruzko aholkua emateko araubidea zehaztu egiten da, Nafarroako

Parlamentuak haiek baimendu behar ditueneko kasuetara murriztuz. Gobernuak bere kabuz edo beste entitate, korporazio edo erakunde batek eskaturik eginiko aukerako kontsultek beharrezko izanen dute hark aurretiaz hala erabakitzea. Halaber, txostenak emateko epeen araubidea egun baliodunetan izateari egokitu zaio, eta Kontseiluak hartuko du epea murrizteari buruzko erabakia, larrialdi-kasuetan.

Bestalde, Parlamentuko bizitzak erakutsi du beharrezkoa dela Nafarroako Parlamentuko Eledunen Batzarrak, Biltzarreko organo politikoa baita, irizpenak eskatu ahal izatea, Mahaiak gain. Biltzarreko Mahaiak, organo administratibo eta barne-kudeaketakoa baita, horretarako ahalmena dauka; Eledunen Batzarrak, ordea, bere proposamenak Mahaiak onar ditzala behar du, nahiz eta, Erregelamenduak esleituriko eskumenak ezberdina izateagatik, hari dagokion gairik garrantzitsuenak aztertu eta ebaztea, are Mahaiaren erabakien aurka aurkezturiko errekursoak ere.

Hori guztia dela-eta, Nafarroako Kontseiluari buruzko martxoaren 16ko 8/1999 Foru Legea aldatzea beharrezkoa da, modurik onenean antolatua egon, funtzionatu eta duen eginkizun instituzional garrantzitsua betetzeko.

1. artikulua. Nafarroako Kontseiluari buruzko martxoaren 16ko 8/1999 Foru Legeko 6. artikulua honako testu hau izanen du:

“6. artikulua. Osoko Bilkura.

1. Nafarroako Kontseiluak Osoko Bilkuran jardunen du. Osoko Bilkura kontseilukide guztiak osatua izanen da.

2. Bilkurak eta eztabaidak egin eta erabakiak hartzearen ondorioetarako Nafarroako Kontseiluaren eraketa baliozkoa izan dadin, aintzat hartu behar da administrazio prozeduraren gaineko arauetan organo kolegiatueterako oro har ezarritakoa”.

2. artikulua. Nafarroako Kontseiluari buruzko martxoaren 16ko 8/1999 Foru Legeko 16. artikulua honako testu hau izanen du:

“16. artikulua. Irizpena.

1. Nahitaez, honako afera hauetan eskatu beharko da Nafarroako Kontseiluaren aholkua:

a) Nafarroako Foru Eraentza Birrezarri eta Hobetzeari buruzko Lege Organikoa aldatzeko.

b) Foru legeen aurreproiektuak edo administrazio-xedapenen proiektuak, baldin eta Nafarroako Kontseiluaren antolamendua, eskumena eta funtzionamendua ukitzen badute.

c) Legegintzako foru dekretuen proiektuak.

d) Konstituzio Auzitegian Konstituziokontraktasun errekurtsioak eta eskumen-gatazkak aurkezteko.

e) Foru Komunitateak Estatuarekin eta autonomi erkidegoekin sinaturiko hitzarmen eta lankidetzak akordioak, horiek sinatzeko Nafarroako Parlamentuaren aurretiazko baimena behar denean, eta horiei buruzko zalantzak edo desadostasunak.

f) Legeak betearazteko ematen diren erregelamenduen edo xedapen orokorren proiektuak, baita horien aldaketak ere.

g) Foru Komunitateko Administrazioaren eskubide ekonomikoei buruzko transakzioak, judiziozkoak nahiz judizioz kanpokoak, eta aipaturiko eskubideei buruz sor daitezkeen gatazkak arbitrajepean jartzea, betiere auzigaiaren zenbatekoa berrogeita hamar milioi pezeta baino gehiagokoa bada, aipaturiko bi kasuetan. Edonola ere, kontsulta ez da nahitaezkoa izanen eskubide horiek ukitzen dituzten itun edo hitzarmenetan, prozesu konkurtsaleen ondorioz sortuak direnean; hain zuzen ere, Nafarroako Ogasun Publikoari buruzko abenduaren 26ko 8/1988 Foru Legearen 15. artikulua 2. idatz-zatiko bigarren lerrokadan aipatzen diren horietan.

h) Berrikuspen-errekurtsio administratiboak.

i) Foru Komunitateko Administrazioak izapidaturiko espedienteak, baldin eta legeak nahitaez eskatzen badu organismo aholku-emaile baten irizpena; betiere, aipaturiko espedienteak honako gai hauei buruzkoak badira, besteak beste:

– Kalte-galerak ordaintzeko erreklamazioak, hogeit hamar milioi pezetatik gorakoak badira.

– Administrazioak bere kabuz berraztertzea administrazio-egintzak.

– Hirigintza-planeamenduko tresnak aldatzea, baldin eta aldaketaren xedea zonifikazio ezberdi-

na egitea edo berdeguneen edo espazio libreen bestelako erabilera egitea bada.

– Udal dermioak aldatzeko espedienteak.

– Hitzarmen eta kontratu administratiboen interpretazioa, deuseztasuna eta amaiaraztea, kontratistak aurkako jarrera agertzen duenean.

– Kontzesio eta kontratuen aldaketak, baldin eta horien zenbatekoa, dela bakarka dela guztiak hartuta, kontratuaren esleipen prezioaren 100eko 20 baino handiagoa bada eta kontratuaren esleipen prezioa 1.000.000.000 pezetakoa edo handiagoa bada.

j) Legearen arabera, Nafarroako Kontseiluaren nahitaezko irizpena behar duen beste edozein gai.

2. Hala nahi izanez gero, honako afera hauetan eskatu ahalko da Nafarroako Kontseiluaren aholkua:

a) Foru legeen aurreproiektuak, Nafarroako Gobernuak bere Lehendakariaren bidez hala eskatzen duenean.

b) Foru legeen proiektu eta proposamenak, Nafarroako Parlamentuak bere Lehendakariaren bidez hala eskatzen duenean, Eledunen Batzarren, Biltzarreko Mahaiaren, Parlamentuko bi talderen edo foru parlamentarien bosten baten ekimenez.

3. artikulua. Nafarroako Kontseiluari buruzko martxoaren 16ko 8/1999 Foru Legeko 18. artikulua honako testu hau izanen du:

“18. artikulua. Beste irizpen batzuk.

Halaber, Nafarroako Kontseiluak irizpena emanen du aukerako kontsulta gisa helarazten dizkionten gai guztietan, Nafarroako Gobernuak, hala erabakita, bere Lehendakariaren bitartez, bere ekimenez edo zuzenbide publikoaren menpeko Nafarroako entitate edo organismoek eskatuta, edo Nafarroako Parlamentuak bere Lehendakariaren bitartez hala eskatzen diotenean, Eledunen Batzarren, Biltzarreko Mahaiaren, Parlamentuko bi talderen edo foru parlamentarien bosten baten ekimenez”.

4. artikulua. Nafarroako Kontseiluari buruzko martxoaren 16ko 8/1999 Foru Legeko 21. artikulua 2. idatz-zatiak honako testu hau izanen du:

“2. Erabakiak hartzeko bertan dauden kontseilukide gehienek botoak beharko dira.

Berdinketarik gertatuz gero, Lehendakariaren kalitatezko botoa erabiliko da.”

5. artikulua. Nafarroako Kontseiluari buruzko martxoaren 16ko 8/1999 Foru Legeko 22. artikulua honako testu hau izanen du:

“22. artikulua. Epea.

Nafarroako Kontseiluak berrogeita bost egun balioduneko epean eman beharko ditu, eskuarki, eskatzen zaizkion irizpenak.

Organo eskatzaileak espedientea presakoa dela justifikatzen duen kasuetan, Kontseiluak epea hamabost egun baliodunera arte jaitsi ahal du.

Salbuespen gisa, Kontseiluak, ebazpen arrazoi bidez, epe orokorra luzatu ahal du, gehiezin ere hamabost egun baliodun gehiago. Aipaturiko ebazpen hori txostena eskatu duenari jakinaraziko zaio.

Nafarroako Kontseiluak irizpenik ematen ez badu adierazitako epean, izapidea beteta dagoela eta aholkua eskatu zaion gaiari buruz eragozpenik ez dagoela ulertuko da”.

6. artikulua. Nafarroako Kontseiluari buruzko martxoaren 16ko 8/1999 Foru Legeko 27. artikulua honako testu hau izanen du:

“27. artikulua. Araubide juridikoa.

1. Nafarroako Foru Komunitateko Administrazioari aplikatzekoa den araubide juridiko bera ezarriko zaio Nafarroako Kontseiluari, kontratazioari, erantzukizunari eta administrazio- edo barne-araubidekoak diren gainontzeko arloei dagokienez.

2. Nafarroako Kontseiluari dagokio bere antolamendu- eta jardun-erregelamenduaren proposamena onestea. Nafarroako Gobernuari dagokio

erregelamendu hori onestea, foru lege honetako printzipioekin bat etorriz”.

7. artikulua. Nafarroako Kontseiluari buruzko martxoaren 16ko 8/1999 Foru Legearen 28. artikuluari idatz-zati bat gehituko zaio. Hauxe da testua:

“3. Nafarroako Kontseilua, antolamendu eta funtzionamendu independentzia badu ere, Foru Komunitateko Administrazioaren ekonomia eta aurrekontu kudeaketari buruzko arau orokorren menpe egonen da.

Era berean, ekonomiaren eta aurrekontuen mailako haren jarduketak Nafarroako Ogasunaren Kontu-hartzailetzaren menpe egonen dira.”

Xedapen gehigarri bakarra. Antolamendu Erregelamendua aldatzea.

Foru Lege honek indarra hartu eta hilabeteko epean, Kontseiluak Nafarroako Gobernuari igorriko dio haren antolamendu eta jardunari buruzko Erregelamendua aldatzeko proposamena, Foru Lege honetan xedatzen denera egokitzeko”.

Xedapen indargabetzailea

Nafarroako Kontseiluari buruzko martxoaren 16ko 8/1999 Foru Legeko 17. artikulua eta laugarren xedapen gehigarria, eta foru lege honetan ezarritakoari aurka egiten dioten xedapen guztiak indargabetu egiten dira.

Azken xedapena

Foru lege honek Nafarroako Aldizkari Ofizialean argitaratzen den egun berean hartuko du indarra.

Foru Lege proposamena, Nafarroako errepideen erabilerari eta ustiapenari buruzkoa

OSOKO BILKURAK BAZTERTUA

Biltzarrak, 2001eko azaroaren 27an egindako Osoko Bilkuran, Nafarroako errepideen erabilerari eta ustiapenari buruzko Foru Lege proposamena baztertzea erabaki zuen.

Biltzarreko Erregelamenduko 112.1 artikuluan

ezarritakoa betez, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzen da.

Iruñean, 2001eko abenduaren 4an

Lehendakaria: José Luis Castejón Garrués

D saila:
HITZARMENAK

Lankidetzaren hitzarmena, Hezkuntza, Kultura eta Kirol Ministerioaren eta Nafarroako Gobernuaren artekoa, Espainiako ondare bibliografikoaren katalogo kolektiboa egiteko

Nafarroako Parlamentuko 162. artikulua eza-rritakoa betez, Nafarroako Gobernuak ondoko hitzarmenari buruz igorri dituen agiriak Biltzarreko Aldizkari Ofizialean argitara daitezela agintzen da: "Lankidetzaren hitzarmena, Hezkuntza, Kultura eta Kirol Ministerioaren eta Nafarroako Gobernuaren artekoa, Espainiako ondare bibliografikoaren katalogo kolektiboa egiteko".

Iruñean, 2001eko abenduaren 5ean

Lehendakaria: José Luis Castejón Garrués

Lankidetzaren hitzarmena, Hezkuntza, Kultura eta Kirol Ministerioaren eta Nafarroako Foru Komunitatearen artean, ondare bibliografikoaren katalogo kolektiboa egiteko

Madrilan,koarenan.

BILDURIK

Alde batetik, Hezkuntza, Kultura eta Kirol Ministerioa ordezkatzuz eta haren izenean, Pilar del Castillo Vera andrea, Estatuko administrazio orokorraren antolaketari eta jardunbideari buruzko apirilaren 14ko 6/1997 Legearen 13.3 artikuluan xedatutakoaz baliatuz eta Administrazio publikoen araubide juridikoari eta administrazio prozedurari buruzko azaroaren 26ko 30/1992 Legearen 6. artikuluari jarraikiz - 4/1999 Legeak emandako erre-dakzio berriari oinarriturik-. Beste aldetik, Nafarroako Foru Komunitatea ordezkatzuz eta haren izenean, Hezkuntza eta Kultura kontseilari Jesús María Laguna Peña jauna, apirilaren 11ko 23/83 Foru Legearen 36.1.0. artikulua emandako ahal-menez baliatuz.

Ondare bibliografikoaren katalogo kolektiboa egiteko hitzarmena izenpetzeko xedearekin.

AZALDU DUTE

Ezen, Espainiako ondare historikoari buruzko ekainaren 25eko 16/1995 Legearen 51. artikulua ezartzen duenez, Estatuko administrazioak (Hezkuntza, Kultura eta Kirol Ministerioa) egin beharko duela, gainerako administrazio eskudunen lankidetzarekin, ondare bibliografikoa osatzen duten ondasunen katalogo kolektiboa.

Ezen, 16/1985 Legea hein batean garatu zuen urtarrilaren 10eko 111/1986 Errege Dekretuan (urtarrilaren 21eko 64/1994 Errege Dekretuak aldatuan), 35.etik 39.era bitarteko artikuluetan aipatzen dela, besteak beste, katalogo hori Liburu, Artxibo eta Liburutegien Zuzendaritza Nagusiari atxikia dagoela, eta Hezkuntza, Kultura eta Kirol Ministerioak, hura egiteko lana errazteko, lankidetzaren hitzarmenak izenpetu ahalko dituela autonomia erkidegoekin.

Ezen, Administrazio publikoen araubide juridikoari eta administrazio prozedurari buruzko azaroaren 26ko 30/1992 Legearen 6. artikulua ahalmena ematen diela Estatuko administrazio orokorrari eta autonomia erkidegoetako gobernu organoei elkarren arteko lankidetzaren hitzarmenak izenpetu dituzaten, zeinek bere eskumenean esparruan, eta adierazten du, halaber, zein den hitzarmen horien eduki gutxienezkoa.

Ezen, 1996ko abenduaren 16an bi aldeek ondare bibliografikoaren katalogo kolektiboa egiteko lankidetzaren hitzarmena izenpetu zutelara, eta horren indarraldia 2000ko abenduaren 31n amaitu zela.

Horiek horrela

HITZARTU DUTE

1. Hitzarmen honen xedea da hasitako lankidetzari jarraipena ematea eta Nafarroako Foru Komunitateko ondare bibliografikoaren katalogo kolektiboa egiteko proiektua, Hezkuntza, Kultura eta Kirol Ministerioaren Liburu, Artxibo eta Liburutegien Zuzendaritza Nagusiak eta Nafarroako

Foru Komunitateko Hezkuntza eta Kultura Departamentuak batera landutakoa, gauzatzea, ekarpen hauetatik abiatutik:

Nafarroako Foru Komunitateko Hezkuntza eta Kultura Departamentuak katalogoa egiteko inbertituko den diru kopuru osoaren ehuneko 60 jarriko du, katalogazio lanetan arituko diren pertsonen ordainsariei dagokiena, zehazki.

Hezkuntza, Kultura eta Kirol Ministerioak kopuru horren gainerako portzentajea jarriko du, katalogatzen jardunen diren lansarien ordainketarena, hori ere.

Jarri beharreko diru kopurua urtero zehaztuko da, aurrekontuan horretarako dagokeen diru kopurua kontuan harturik. Hezkuntza, Kultura eta Kirol Ministerioak egin beharreko urteko ekarpena zehazteko aintzat hartuko ditu aurreko urtean Foru Komunitateak emandako erregistroen kopurua eta kalitatea.

2001. urterako kopurua 120.202,42 eurokoa izanen da (20.000.000 pezeta); horietatik, Nafarroako Foru Komunitateak 72.121,45 euro (12.000.000 pezeta), hau da, ehuneko 60, jarriko du eta Hezkuntza, Kultura eta Kirol Ministerioak 48.080,97 euro (8.000.000 pezeta), hau da, ehuneko 40, jarriko du.

Hurrengo aurrekontualdian, zenbatekoa alderdiek beren aurrekontuetan horretarako dukeen diru kopuruaren arabera zehaztuko da, hitzarmen honen eranskin bat izenpetuz, baina, betiere, aurreko lerrokadetan finkaturiko portzentajeak beteko dira.

Hezkuntza, Kultura eta Kirol Ministerioak jarritako diru kopurua Nafarroako Foru Komunitateko Hezkuntza eta Kultura Departamentuari jaulkiko zaio, behin hitzarmen hau izenpeturik, katalogazio lanetan aritzen diren langileei ordaintzen inbertitu dadin.

2. Hezkuntza eta Kultura Departamentuak arduradun bat izendatuko du, Liburu, Artxibo eta Liburutegien Zuzendaritza Nagusiak eta Nafarroako Foru Komunitateko Hezkuntza eta Kultura Departamentuak batera taxuturiko proiektuari lotuko zaion lan programa prestatu eta horren exekuzioa zuzen dezan Nafarroako Foru Komunitatean. Era berean, jarraipen batzorde bat eratuko da, lau pertsonak osatua: horietako bat, Gobernuak Nafarroako Foru Komunitatean duen delegatuaren ordezkaria izanen da, eta beste bat katalogo kolektiboaren arduraduna Komunitatean; gainerako bi batzordekideak adostuta izendatuko dira. Batzorde honen zeregina izanen da programa horretan batera egin beharreko faseak prestatzea

eta proiektua gauzatzean gerta daitezkeen gora-beherei aterabidea ematea.

3. Hezkuntza eta Kultura Departamentuak Liburu, Artxibo eta Liburutegien Zuzendaritza Nagusira igorriko du bildutako erregistroen kopia bat, ondare bibliografikoaren katalogo kolektiboaren datu baseari eransteko. Erregistro horiek jarraibide teknikoaren arabera eta proiektuaren datu trukaketarako hizkuntza komunean idatzirik bidaliko dira, hau da, ISBDaren arabera katalogaturik, katalogatzeko hizkuntza gisa gaztelania erabiliz eta IBERMARC formatuan kodeturik.

4. Liburu, Artxibo eta Liburutegien Zuzendaritza Nagusiak, bere aldetik, bildu eta Espainiako ondare bibliografikoaren katalogo kolektiboak prozesaturiko datuen kopia bat bidaliko du, Nafarroako Foru Komunitateko ondare bibliografikoaren katalogo kolektiboaren datu baseari eransteko.

5. Nafarroako Foru Komunitateak nahi duen eran zabaldu ahalko du bere ondare bibliografikoaren katalogo kolektiboa, 111/1986 Errege Dekretuaren 39. artikuluan ezarritakoari jarraikiz.

6. Hezkuntza, Kultura eta Kirol Ministerioaren Liburu, Artxiboen eta Liburutegien Zuzendaritza Nagusiak nahi duen eran zabaldu ahalko du Espainiako ondare bibliografikoaren katalogo kolektiboaren datu basea, 111/1986 Errege Dekretuaren 39. artikuluan ezarritakoari jarraikiz.

7. Hitzarmen hau izenpetzeak ez du baztertzen beste proiektu katalogafikoetan aritzea Espainiako zein atzerriko beste erakunde publiko edo pribatuekin lankidetzan.

8. Hitzarmen honek indarra izanen du izenpetzen denetik 2005eko abenduaren 31ra bitarte, eta luzatu ahalko da Administrazio publikoen arabide juridikoari eta administrazio prozedurari buruzko azaroaren 26ko 30/1992 Legearen 6. 2.f artikulua ezartzen duen moduan.

Agerrarazi egiten da hitzarmen honek ez duela ondorio ekonomikorik urte batean baino gehiagotan.

9. Hezkuntza eta Kultura Departamentuak egiaztatuko du hitzarmenaren xedea materialki betetzen dela, bai eta Hezkuntza, Kultura eta Kirol Ministerioak eta Hezkuntza eta Kultura Departamentuak emandako diru kopuruak katalogazio lanetan aritzen diren langileen ordaintzetan inbertitu direla ere, hitzarmen honen 1. puntuan zehaztu bezala. Egiaztapen hori, hitzarmenaren iraunaldiko urte bakoitzeko, hurrengo urteko lehendabiziko hiru hilabeteetan egien da.

10. Hitzarmen honen xedea hobeki betetzeko, alderdiek aldatu ahal izanen dute, horretarako ados jarritz gero biak, eta arau indardunetan ezarritako tramiteak behin baterik.

11. Hitzarmen honi amaiera emateko, amaieraz nahi duen alderdiak urteko lehen seihilekoan egin beharko du. Nolanahi ere, hitzarmenaren amaierak ez du ondorioz izanen urte hori amaitu arte.

Era berean, hitzarmena iraungi ahalko da xedea erabat baterik dagoenean, indarraldia amaitu aurretik ere, bi alderdiek hala erabakita, izenpetzea eragin zuen xedea betetzerik ez delako izan izenpetu ondotik sortutako arrazoiengatik edo eta alderdiek hitzarmena ez betetzeagatik.

12. Administrazio publikoen araubide juridikoa-ri eta administrazio prozedurari buruzko azaroaren 26ko 30/1992 Legearen 6. 3 artikuluan xedatutakoaz baliatuz, hitzarmen hau ulertu eta betetzetik heldu diren arazoak 2. puntuari aipatzen den jarraipen batzordeak ebaziko ditu.

Bi alderdiek lau aletan izenpetu dute agiri hau idazpuruan aipatzen diren tokian eta egunean, haren edukiarekin bat eta hala ager dadin.

Hezkuntza, Kultura eta Kirol ministroa: Pilar del Castillo Vera

Hezkuntza eta Kultura kontseilaria: Jesús María Laguna Peña

Lankidetzaren hitzarmena, Enpleguaren Institutu Nazionalak eta Nafarroako Foru Komunitateak eratu duten Koordinazio eta Jarraipen Batzordearen eginkizunak arautzekoa

OSOKO BILKURAREN BAIMENA

Nafarroako Parlamentuak, 2001eko azaroaren 27an egindako Osoko Bilkuran, Foru Diputazioari ondoko hitzarmena izenpetzeko eskatutako baimena ematea erabaki zuen: "Lankidetzaren hitzarmena, Enpleguaren Institutu Nazionalak eta Nafarroako Foru Komunitateak eratu duten Koordinazio eta Jarraipen Batzordearen eginkizu-

nak arautzekoa". Haren testua 2001eko urriaren 30eko 109. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 2001eko abenduaren 4an

Lehendakaria: José Luis Castejón Garrués

Lankidetzaren hitzarmena, Nafarroako Foru Komunitatearen enplegu kudeaketa eta Enpleguaren Institutu Nazionalaren langabezi prestazioena koordinatzeko

OSOKO BILKURAREN BAIMENA

Nafarroako Parlamentuak, 2001eko azaroaren 27an egindako Osoko Bilkuran, Foru Diputazioari ondoko hitzarmena izenpetzeko eskatutako baimena ematea erabaki zuen: "Lankidetzaren hitzarmena, Nafarroako Foru Komunitatearen enplegu kudeaketa eta Enpleguaren Institutu Nazionalaren

langabezi prestazioena koordinatzeko". Haren testua 2001eko urriaren 30eko 109. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 2001eko abenduaren 4an

Lehendakaria: José Luis Castejón Garrués

Lankidetzaren hitzarmena, Enpleguaren Institutu Nazionalaren eta Nafarroako Foru Komunitatearen artean informazioa eta estatistika trukatzeko

OSOKO BILKURAREN BAIMENA

Nafarroako Parlamentuak, 2001eko azaroaren 27an egindako Osoko Bilkuran, Foru Diputazioari ondoko hitzarmena izenpetzeko eskatutako baimena ematea erabaki zuen: "Lankidetzaren hitzarmena, Enpleguaren Institutu Nazionalaren eta Nafarroako Foru Komunitatearen artean informazioa

eta estatistika trukatzeko". Haren testua 2001eko urriaren 30eko 109. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 2001eko abenduaren 4an

Lehendakaria: José Luis Castejón Garrués

E saila:
JABELDURAK, MOZIOAK ETA ADIERAZPEN POLITIKOAK

Erabakia, Nafarroako Gobernua premiatzen duena Nazioko Gobernuari eskatzera Unibertsitatei buruzko Lege Organikoaren proiektuaren azterketa sakona egiteko behar diren neurriak har ditzan

OSOKO BILKURAK ONETSIA

Biltzarreko Erregelamenduaren 112. artikuluan ezarritakoa betez agintzen da Nafarroako Parlamentuko Aldizkarian argitara dadila honako "Erabakia, Nafarroako Gobernua premiatzen duena Nazioko Gobernuari eskatzera Unibertsitatei buruzko Lege Organikoaren proiektuaren azterketa sakona egiteko behar diren neurriak har ditzan", Nafarroako Parlamentuko Osoko Bilkurak 2001eko azaroaren 27an onetsia. Socialistas del Parlamento de Navarra Parlamentuko Taldeak aurkeztu eta 2001eko ekainaren 20ko 68. NPAOn argitaratutako mozioa ordezkatu zuen "in voce" zuzenketa gisa.

Iruñean, 2001eko abenduaren 4an

Lehendakaria: José Luis Castejón Garrués

Erabakia, Nafarroako Gobernua premiatzen duena Nazioko Gobernuari eskatzera Unibertsitatei buruzko Lege Organikoaren proiektuaren azterketa sakona egiteko behar diren neurriak har ditzan

Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernua premiatzen du Nazioko Gobernuari eskatzera Unibertsitatei buruzko Lege Organikoaren proiektuaren azterketa sakona egiteko behar diren neurriak har ditzan Senatuan tramitatzen den bitartean, tramite horretan helburu hauek erdietsi ahal izateko:

1. Adostasun zabala unibertsitate erkidegoko ordezkariekin eta Parlamentuko taldeekin.

2. Aldaketak egitea lege proiektuan, horien bitartez unibertsitate erkidegoaren autonomia eta partaidetza indartu, gizarte kontrolerako tresnak hobetu, unibertsitate publikoen finantziazioa areagotu, bekak gehitu, unibertsitatean sartzeko aukera berdintasuna bermatu, unibertsitateko irakasleak hautatzeko sistemak aztertu, unibertsitate pribatuetako irakasleen kalitatea ziurtatu eta unibertsitatean ikerkuntza sustatzeko.

F saila:
GALDERAK

Ogasun publikoari buruzko Foru Legearen artikulua batzuren interpretazioari eta artikulua horiek Nafarroako aurrekontu orokorren zenbait alderditan duten eraginari buruzko galdera

BATASUNA PARLAMENTUKO TALDEAK EGINA

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2001eko abenduaren 4an egindako bilkuran, Batasuna Parlamentuko Taldeak Ogasun publikoari buruzko Foru Legearen artikulua batzuren interpretazioari eta artikulua horiek Nafarroako aurrekontu orokorren zenbait alderditan duten eraginari buruz egindako galderaren biderapena onestea erabaki zuen. Galdegileak idatzizko erantzuna eskatu du.

Erabaki hori betetzeko, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzen da.

Iruñean, 2001eko abenduaren 5ean

Lehendakaria: José Luis Castejón Garrués

GALDERAREN TESTUA

Batasuna Parlamentuko Taldeak, Biltzarreko Erregelamenduan xedatuaren babesean, ondoko galdera aurkeztu du, Nafarroako Gobernuak idatziz erantzun diezaion.

2002 ekitaldirako Nafarroako Aurrekontu Orokorrei buruzko Foru Lege proiektua tramitatzen ari den honetan, kontuan izanda Biltzarrean sartzean proiektu horren duen babesa zein den, oso litekeena da lege proiektu horrek, azkenean, Parlamentuan gehiengoaren babesa ez lortzea eta indarrean diren aurrekontu orokorrak luzatu behar izatea.

Egoerari berari zein horrek praktikan izan dezakeen eraginari buruz hitz egin izan da Parla-

mentuko hainbat instantzian, eta argi geratu da Nafarroako Ogasun Publikoari buruzko abenduaren 26ko 8/1988 Foru Legeak dioena ez dugula denok berdin interpretatzen.

Horrenbestez, ondoko galdera aurkeztu dugu, Gobernuak auzi horri buruz egiten duen interpretazio zehatza zein den jakiteko.

Nafarroako Ogasun Publikoari buruzko abenduaren 26ko 8/1988 Foru Legeko 36 eta 37. artikuluetan kredituen zenbatekoari zein gastu baimenei buruzko arau zehatzak ematen dira. Nola interpretatzen ditu Nafarroako Gobernuak arau horiek ondokoei dagokienez:

- Aurrekontu indardunen gaineko ukipena (hasierako aurrekontua zein aurrekontu bateratua)
- Gastu arrunten edo/eta inbertsio hitzartuen edo/eta urte anitzetako gaineko ukipena
- Foru administrazioak eta langileen ordezkariak 2002ko lansarietarako hitzartutako igoera portzentuala aurrekontu indardunean ezarritakoa baino handiagoa izanez gero, horren ukipena
- KPIren igoerak 2002rako aurrekontu eskura-garritasunean izan dezakeen ukipena aurrekontua luzatuz gero.

Iruñean, 2001eko azaroaren 23an

Eleduna: Joxe Fernando Barrena Arza

Toki administrazio batzuetan idazkaritzak elkartzearen inguruko arazoei buruzko galdera

FORU PARLAMENTARI JOSÉ ANDRÉS BURGUETE TORRES JAUNAK EGINA

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2001eko abenduaren 4an egindako bilkuran, foru parlamentari José Andrés Burguete Torres jaunak toki administrazio batzuetan idazkaritzak elkartzearen inguruko arazoei buruz egindako galderaren biderapena onestea erabaki zuen. Galdegileak idatzizko erantzuna eskatu du.

Erabaki hori betetzeko, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzen da.

Iruñean, 2001eko abenduaren 5ean

Lehendakaria: José Luis Castejón Garrués

GALDERAREN TESTUA

Nafarroako Demokraten Elkargunea Parlamentuko Taldeko foru parlamentari José Andrés Burguete Torres jaunak, Parlamentuko Erregulamentuaren 184. artikulua eta ondokoek xedatuaren babesean, hurrengo galdera egin dut, Nafarroako Gobernuak idatziz erantzun diezadan:

Toki Administrazioiko Departamentua idazkarien batasunen auzia konpontzeko legeak ezartzen dion betebeharra ez betetzeaz gain –eta hartara, ez du lanpostu horiek behin betiko betetzearen auzia desblokeatzen–, udal batzuei eskatzen ari zaie ofiziosz baliogabe dezaten idazkari lanpostuaren betetzea, zenbait kasutan orain 10 eta 12 urte egin zena –lanpostuaren betetzearen aurkako errekurtsioa ere aurkeztu izan du Administrazioarekiko Auzietarako Salan–.

Jarrera hori albo batera uzteko eskatu dio departamentu horri Nafarroako Udal eta Kontzejuen Federazioko zuzendaritzak.

Departamentuaren jarrera hori haserrea eragiten ari da toki entitateen artean, eta ezusteko

desatsegina izan da Nafarroako Udal eta Kontzejuen Federazioko zuzendaritzarentzat, zeinak uste baitu azkenean sen ona nagusituko dela eta bukatu eginen direla behin-behineko idazkarien auzian departamentua udalei egiten ari zaizkien eskaerak. Zuzendaritzaren ustez, logikoagoa litzaiteke departamentuak legeak ezartzen dion betebeharra betetzea, hots, behin-behinekotasuna behin betikoz amaitzea.

Hori dela-eta, hauxe jakin nahi dugu:

1.- Ba al du prest Nafarroako Gobernuak eskatutako titulua duten eta lanerako pronto leudekeen pertsonen zerrenda –2000n iragarri zuenari jarraikiz– Nafarroako Foru Komunitatean idazkarien kidegoen gertatzen diren aldi baterako bajak betetzeko?

2.- Toki Administrazioiko Departamentua idazkarien lanpostu betetzea, zenbait kasutan orain 10 eta 12 urte egin zena, ofiziosz balio gabetzen ari da. Zergatik ari da betetze horien aurkako errekurtsioak orain jartzen? Kontuan izanda Toki Administrazioari buruzko Foru Legea 1990ekoa dela, zergatik ez zuen halakorik egin aurreko urteetan?

3.- Aurreikusitako al du Nafarroako Gobernuak inolako lege-neurririk –Toki Administrazioari buruzko 19990eko Foru Legean xedatutakoari jarraikiz– lanpostu finkoen betetzea desblokeatzeko?

4.- Zenbat toki entitateri eragiten diote Toki Administrazioiko Departamentua hartzen ari den neurri berri horiek? Entitate horien zerrenda eta ukitutako pertsonen antzintasuna jakin nahi dugu.

Iruñean, 2001eko azaroaren 26an

Foru parlamentaria: José Andrés Burguete Torres

G Saila:
TXOSTENAK, DEIALDIAK ETA PARLAMENTUKO INFORMAZIOA

Nafarroako Foru Komunitatean behi-aziendaren entzefalopatia espongiformearen jarraipena eta kontrola egiteko batzorde bereziak onetsitako txostena

OSOKO BILKURAK BERRETSIA

Biltzarreko Osoko Bilkurak, 2001eko azaroaren 27an eginiko bileran, Nafarroako Foru Komunitatean behi-aziendaren entzefalopatia espongiformearen jarraipena eta kontrola egiteko batzorde bereziak onetsitako txostena berretsi zuen.

Iruñean, 2001eko abenduaren 4an

Lehendakaria: José Luis Castejón Garrués

Nafarroako Foru Komunitatean behi-aziendaren entzefalopatia espongiformearen jarraipena eta kontrola egiteko batzorde bereziak onetsitako txostena

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak 2001eko otsailaren 5ean hartutako erabaki baten bitartez eratu zen Nafarroako Foru Komunitatean behi-aziendaren entzefalopatia espongiformearen jarraipena eta kontrola egiteko batzorde berezia. Horren helburua da behi-aziendaren entzefalopatia espongiformea aztertzea eta horri buruzko informazioa jaso eta proposamenak egitea.

Batzordea 2001eko otsailaren 20an eratu zen, eta bere bileretan parte hartu dute zenbait kolektibok, agintarik, adituk eta batzorde bereziaren helburu den gaiaren esparruan proposamenak eta iritzia eman zituzten parte hartu beharrekotzat jo ziren pertsona guztiek. Halaber, Batzordeak gai horri buruzko dokumentazio ugari bildu du.

2001eko irailaren 18an eztabaidatu eta, kasu batzuetan, onetsi ziren Parlamentuko taldeek aurkezturiko proposamen batzuk. Hain zuzen ere, proposamen horiek osatzen dute Mahaiari eta Eledunen Batzarrari aintzat har dezaten bidali zaien txostena. Batzorde Bereziaren eraketa, antolamendu eta funtzionamenduari buruzko

arauetako bosgarrenak xedatuari jarraikiz bidali zaie txosten hori.

1. IRITZI OROKORRAK.

Nafarroako Parlamentuaren aburuz, behi-aziendaren entzefalopatia espongiformearen (alegia, BEEren) krisia ez da arazo zehatz edo mugatu bat bakarrik; arazo orokor baten agergarri ere bada; arazo horren sorburua nazioartean eta Europan dagoen nekazaritza-eredu produkziozale, intentsibo eta kostu baxuko produkziozale, hain zuzen ere, pentsuak, eta ez lurtean oinarrituriko produktuak, erabiltzen dituen.

Nafarroako Parlamentuak beharrekotzat jotzen du nekazaritza-ereduari buruzko eztabaida sakon bati ekitea. Eztabaida horrek alternatibak aurkitu beharko ditu gaur egungo eredurako, zeinaren ezaugarri baitira industriaren eta nekazaritzaren arloko ustiategi handiak, enplegu gutxiokoa, kalitate urrikoak eta ingurumenean kalte larriak eragiten dituztenak.

Nafarroako Parlamentua etorkizunean lehentasunez familien ustiatzei laguntza ematearen aldekoa da, interes sozialak, ingurumenekoak eta elikagaien kalitateari dagozkionak bermatzeko. Ildo horretan, Parlamentuak Nafarroako Gobernuari premiazko jarduerak eman beharrekotzat joz, gobernua zentralaren nahiz Europako erakundeekin aurrean defenda dezan.

Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernuari eskatzen dio BEEren krisiaren kudeaketan erantzukizuna daukaten Foru Komunitateko gainerako erakundeekin lankidetzan jardun dezan, eta bereak diren erantzukizunei ez diezaien ihes egin haiek beste erakunde batzuei egotziz –bide zibil eta penaletara joko zuela mehatxu eginez eta guzti, Nafarroan sortutako material

arriskutsuen tratamendua zela-eta Iruñerriko Mankomunitatearekin gertatu zen bezala.

2. NEKAZARITZARI ETA ABELTZAINZARI DAGOZKIEN NEURRIAK.

Nafarroako Gobernuak behar diren xedapenak prestatuko ditu herrialde arriskudunetatik bai gizentzeko eta kontsumorakoa bai umatzekoa den behi-azienda inportatzea debekatzeko, eta horretarako kontrolak ugarituko ditu.

Nafarroako Gobernuak, nekazaritza eta abeltzaintza arloetako sindikatuekin eta ekologisten kolektiboekin lankidetzan arituz, sektorea erabat birmoldatzeko plan bat prestatuko du, eta Parlamentura igorriko du, bertan eztabaidatu eta onesteko.

Nafarroako Gobernuak lehenatasunez emanen dizkio dirulaguntzak nekazaritza eta abeltzaintza ekologikoaren produkzioari.

Nafarroako Gobernuak elikagaien kalitatearen zehaztapenean erabiltzeko parametro objektibo batzuk prestatuko ditu, hala nola hondakin edo kutsagai kimiko eta/edo mikrobiozkorik ez izatea.

Nafarroako Gobernuak 2002-01-01a baino lehen abian jarriko du proteina begetalak produzitu eta hedatzeko pizgarriak emateko eskualde-programa bat.

Abeltzaintzaren Sektorearentzako laguntza berariazkoak.

Erromako Hitzarmeneko 87. artikulua baimendu egiten du hondamendi naturalei edo ohiz kanpoko gertakariari aurre egiteko aldi baterako laguntza nazionalak ematea; xedapen horretan oinarriturik, Europar Batasuneko zenbait herrialdek, Frantziak edo Alemaniak kasu, laguntza horiek eman dituzte. Nafarroako Parlamentuak adierazten du BEEak eragindako krisia zuzeneko laguntza publikoak baimentzea justifikatzen duen "ohiz kanpoko gertakarietat" jo behar duela Nafarroako Gobernuak.

Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernuak prestatzen duen sektorea ordezkatzeko erakundeek eskaturikoa onar dezan eta haiekin negoziatzen has dadin, abeltzainek jasandako galerak behar bezala ordainduko dituzten laguntzak ahalbidetzeko.

Saneamendu-kanpainak direla-eta abeltzainei kalte-ordainak ematean, honako kontzeptu hauek kontuan hartuko dira:

a) Abere bakoitza hiltzearen ondoriozko laguntza edo kalte-ordaina; merkatuko benetako prezioan oinarrituz kalkulatu da.

b) Eskuratu gabeko irabaziak.

c) Hildako aberea ordeztzeko laguntza.

Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernuak prestatzen du abeltzaintza-sektorearen eskara ekonomikoari erantzuteko beharrezkoak diren neurriak eta erabakiak har ditzan, 2002rako 435.815.000 pezeta zenbatekoa bideratuz, Nafarroan behi-aziendaren entzefalopatia espongi-formeak sektoreari ekarritako arazo ekonomikoak konpontzeko. Eskaturiko neurri horien kostua honela xehekatzen da:

a) 75.000.000 pezeta, hil egin behar izan diren 12 hilabetetik beherako abereak direla-eta laguntza emateko.

b) 235.815.000 pezeta, behi ume-hazleentarako laguntza emateko.

c) 125.000.000 pezeta, hazteko edo hiltzeko saldatuko esneko aratxeentarako laguntza emateko.

Kasuan kasuko aseguruak formalizatzen ez diren bitartean, Nafarroako Gobernuak bere gain hartuko ditu ustiatzearen hildako abereen hilotzak bildu eta garraiatzearen gastu guztiak.

Halaber, bizirik dauden abereak garraiatzeko beharrezkoak diren albaitaritza-ziurtagiriaren gastua osoki finantzatu da.

Nafarroako Gobernuak prestatzen da ez-ohizko neurriak ezar ditzan osasun-arrazoien ondorioz edozein abeltzaintza-ustiatzei hustu behar izatearen muturreko kasurako, eta laguntzak antola ditzan, hustuketari aurre egiteko kalte-ordainez ez ezik abeltzaintza-jarduerari berriro ekiten laguntzeko neurri ekonomiko ere osatuak.

Nafarroako Gobernuak plan berezi bat prestatuko du bertako arrazei eta abeltzaintza estentsiboaren arloko praktikei eta maneiatzeari laguntzeko. Plan horretan, gutxienez ere, honako hauek bilduko dira:

a) Bertako arrazekin lan egiten abeltzain-elkar-teentzako laguntzak ugaritzea.

b) Nekazaritza Politika Komunaren esparruan beharrezkoak diren erreformak bultzatzea kasuan kasuko erakundeetan, politika horretatik abiatuak benetan laguntza eman ahal izateko abeltzaintza estentsiboari.

c) Nekazaritza eta abeltzaintza ekologikoari laguntza ematea.

d) Aurrerako hazkuntza bertako arrazekin egiteko laguntza ematea.

e) Hobekuntza genetikoko politikei laguntza ematea.

f) Olio-labore eta proteaginosoetara bideraturiko laguntza modu iraunkorrean ezarrita egotea, eta ez dadila izan inoiz edo behin emandako aparteko laguntza bat.

Nafarroako Gobernuak indartu eginen du "Nafarroako Aratxea" Kalitatezko Deiturarentzako laguntza ekonomikoa, halako moldez non honako hauek egin ahalko baitira:

a) Kontrol-neurriak kate guztian zehar ugaritu: ustiategietan, hiltegi eta zatikatze-geletan, harategietan eta gainerako salmenta-tokietan.

b) Maila guztietan prestakuntza-ekintzak burutu, haragia jatearen komenigarritasunari eta "Nafarroako Aratxeak" eskaintzen dituen bermeei buruzko funtsezko ideiak helarazi ahal izateko.

c) Komunikazio Plan bat egin.

d) Sistematikoki antolaturiko sustapen/publizitate kanpainak egin, kontsumitzailearengan eragin eta haren konfiantza lortzeko.

3. ZERIKUSIA DAUKATEN BESTE SEKTORE BATZUEI DAGOZKIEN NEURRIAK.

Nafarroako Gobernuak beharrezkoak diren lege-aldaketak egin daitezzen bultzada emanen du, gure Komunitatean merkaturaturiko haragi guztien etiketek argi eta garbi ager dezaten haragiaren jatorria, ustiategia, aberearen arraza, ustiategi-mota, elikadura eta aberea hil duteneko hiltzea.

Nafarroako Gobernuak finantzaketa-sistema bat ezarriko du hiltzegeiek legea bete ahal izan dezaten behi-aziendaren entzefalopatia espongiformearekin zerikusia daukaten puntuetan (alegia, bizkarrezurra kentzea, eta haragia elikadura-katean osasungarritasun- eta higiene-baldintzarik onenetan sartzeko hartu behar diren bestelako neurriak).

Nafarroako Gobernuak behar diren neurriak hartuko ditu hiltzegeietan material arriskutsuekin lan egiten duten langileak behar bezala babestuta daudela bermatzeko. Babes horretarako, adituek gomendatutako elementuak erabiliko dira.

4. INGURUMENA.

Nafarroako Gobernuak hiru hilabeteko epean txosten bat prestatuko du gure Komunitatean dauden animalia sarraskijaleen multzoari buruz.

Sarraskijaleei dagokienez dagoen abelburu-kargatik abiatuz, txostenak adierazi beharko du

zeintzuk diren haren elikadura-beharrizanak; halaber, gaur egun dauden simaurtegi baimenduak eta gaur egungo eskariari aurre egiteko behar direnak zehaztu beharko ditu, eta haien kudeaketa-sistemaren nahiz bertan erabiliko den haragi-motaren berri ere eman beharko du.

Behi-aziendaren entzefalopatia espongiformearen kontrolerako Europar Batasunak agindutako neurri guztiak betetzeko xedez birmoldatuko diren simaurtegien kontrola bermatzeko, beharrezkotzat jotzen diren neurri osagarriak hartuko ditu Nafarroako Gobernuak.

Nafarroako Parlamentuari neurri horien berri emanen zaio.

Nafarroako Gobernuak premiatzen da haragi-irriak hondakindegietan lurperatzeko baimenik eman ez dezan, eta horren ordez Europako jarraibideek baimentzen dituzten gainerako aukerak jarritan.

5. OSASUNA ETA IKERKETA ZIENTIFIKOA.

Nafarroako Gobernuak albaitaritzaren establezimenduei eta abere-osasunerako medikamentu-kontrolari dagokienez Farmazia Laguntzari buruzko Foru Legea betetzen dela bermatuko du.

Nafarroako Gobernuak beharrezkoak diren funtsak zuzkituko ditu BEEa ikertzeko berriazko Plan baterako, zeina prest eduki beharko baitu 2002-01-01a baino lehen, eta ordurako ere Nafarroako Parlamentura igorrita egon beharko du, onetsia izan dadin.

Plan horretan honako puntu hauek hartuko dira kontuan:

1. Lehetasunezko helburuak eta horretarako kontusailak zehaztea.

2. Taldeen arteko lankidetzari lehetasuna emanen dioten deialdi publiko eta lehiaketetan hautatzea proiektuak.

3. Gure Komunitateko zentro eta laborategietan dauden azpiegitura eta giza baliabideak erabiltzea.

4. Estatuko eta Europako esparruan lankidetzarako bitartekoak bilatzea.

Nafarroako Gobernuak Nafarroako Osasun Sareko ospitale publiko guztiak autopsia gelak egokitzeko eta, horrela, nekropsiak berme eta segurtasun osoz egin ahal izateko beharrezkoak diren neurriez hornituko ditu.

Halaber, entzefalopatia espongiforme kutsakor baten ondorioz hil direla susmatzen diren pertso-

nei nekropsiak egiteko behar diren neurriak hartuko ditu.

Era berean, zerbitzu horietan Lan Arriskuei buruzko Legea bete dadin zainduko du.

Nafarroako Gobernuak Osasun Publikoaren Institutuko zaintza epidemiologikoko programen barruan entzefalopatia espongiforme kutsakorrek zaintzeko programa berariazko bat sartuko du, eta koordinatzaile bat izendatuko du, bai maila epidemiologikorako bai klinikorako.

6. INFORMAZIO-KANPAINAK.

Nafarroako Parlamentuak Foru Gobernuari eskatzen dio bultzada eman diezaiela elikagaien segurtasuna bermatzeko osasun-kontrolen kalitate eta mailaren berri emateko kontsumitzaileei zuzenduriko informazio-kanpainei.

Nafarroako Parlamentuak Foru Gobernuari galdatzen dio Foru Komunitateko berezko produktu eta abeltzaintza-deituren sustapen-kanpainei bultzada eman diezaien, haien prestigioa berres-

kuratzeko. Abeltzaintza ekologikoa ere laguntza publikoaren bitartez susta dadila eskatzen da.

Nafarroako Gobernua premiatzen da kontsumitzaile-elkarteekin lankidetzan arituz kontsumitzaileen prestakuntzarako plan bat taxutu dezan, elikagai osasungarriagoen eskarira zuzenduriko filosofia bat, kontsumo arduratsuarena, sustatzeko. Plan hori hiru sektoretara zuzendu beharko da: elikagai-establezimenduetara (eremu handiak, nagusiki), ekoizleengana (nekazariak eta abeltzainak) eta administrazio publikoetara. Plan hori Nafarroako Parlamentura igorriko da, bertan eztabaidatu eta onesteko.

7. NAFARROAKO PARLAMENTUKO OSOKO BILKURAK BERRESTEA.

Batzorde Bereziak Eledunen Batzarrari eskatzen dio txosten hau, zeinean biltzen baitira gehiengoaren onespina daukaten ondorioak, Parlamentuaren Osoko Bilkurari aurkez dakion, berrespenerako, eta bere edukia gauzatzeko beharrezkoak diren parlamentu-ekimen guztiak izapida daitezela.

Nafarroako Parlamentuak izendatu behar dituen Nafarroako Ikus-entzunezkoen Kontseiluko kideak izendatzea

Nafarroako Parlamentuko Osoko Bilkurak, 2001eko azaroaren 27an egindako bileran, ondoko erabakia hartu zuen, besteak beste:

Nafarroako Parlamentuak izendatu behar dituen Nafarroako Ikus-entzunezkoen Kontseiluko kideak ondoko hauek izendatzea:

- Amanda Acedo Suberviola andrea.
- Balbino Bados Artiz jauna.

– Eva Laita Martínez andrea.

– Javier López de Munáin Renedo jauna.

– Juan Andrés Platero Alda jauna.

Biltzarreko Erregelamenduko 112.1 artikulua xedatutakoa betez, argitara dadin agintzen da.

Iruñean, 2001eko abenduaren 4an

Lehendakaria: José Luis Castejón Garrués



NAFARROAKO PARLAMENTUKO
ALDIZKARI OFIZIALA

HARPIDETZA ORRIA

Izen-deiturak

Helbidea

Telefonia *Hiria*

P. K. *Probintzia*

Ordaintzeko:

Dirua Nafarroako Aurrezki Kutxako 2054/0000 41 110007133.9 zenbakiko kontu korrontera igorri edo bertan sartu

HARPIDETZAREN PREZIOA ALDIZKARI OFIZIALA ETA BILKURA EGUNKARIA Urte bat..... 6.300 pta. Aldizkari Ofizialaren aleko prezioa..... 150 » . Bilkura Egunkariaren aleko prezioa..... 185 » .	IDAZLARITZA ETA ADMINISTRAZIOA NAFARROAKO PARLAMENTUA «Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofiziala» Arrieta 12, 3 31002 IRUÑA
--	--